

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskutzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	FAGOR KOOP.E
2. Sektorea:	Industria
3. Langile kopurua:	45 emakume/55 gizonetzko
4. Webgunea:	www.fagor.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Fagor Taldea osatzen dugun kooperatibak gara: Copreci, Galbaian, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Fagor Electrónica, Fagor Industrial eta Mondragon Assembly. Soluzio teknologiko aurreratuak eskaintzen dizkiegu mundu osoko bezeroei.</p> <p>Hainbat arlo lantzen dugu: etxetresna elektrikoetarako osagaiak, produktu metaliko lauak prozesatzeko ingeniaritza, makina erremintak automatizatzeko sistemak, automozio osagaiak, fabrikazio elektronikoko zerbitzuak, ostalaritza, garbitegi eta hotz komertzialeko ekipiak eta muntaia prozesuen automatizazioa.</p> <p>Taldearen egitura eta organoen kudeaketaz arduratzen diren zerbitzu zentralak kokatzen dira Fagor S.Coop.en. Talde kudeaketaz arduratzen dira Idazkaritza Orokorra, Eraldaketa Soziala, Gestio Soziala eta Administrazio departamentua eta Taldeko kooperatibei nagusiki, baina baita taldez kanpoko enpresei ere zerbitzua eskaintzen dieten departamentuak dira Antolaketa eta Sistemak, Dokumentazioa eta Garraioa.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Leire Okarantza Ibabe
Helbide elektronikoa:	lokarantza@fagor.eus
Telefonoa:	943 03 40 26

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	KOMUNIKAZIO IDATZIA EUSKARAZ BI KANALEN BIDEZ
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Fagor Taldeko ildo estrategikoetako bat euskarari funtzio propioak ematea izanik, Taldearen eta kooperatiben arteko eta kooperatiba eta bazkideen arteko komunikazioetan bi kanalen dinamika daukagu ezarrita Fagor S.Coop.eko Hizkuntza irizpideetan:</p> <ul style="list-style-type: none">o <u>Erakundearen barne harremanetarako idatziak, hala nola, emailak, oharra, jakinarazpenak, memoriak, txostenak... euskara hutsean eta, ulermen arazoak dituenari, euskara lehenetsita bidaliko dira, bi kanal sortuz beharrak hala eskatuz gero.</u> Lehentasunez euskaraz sortuko da. Euskaraz sortzea ezinezko denean, berriz, gaztelaniatik euskarara itzuliko da. <p>2020an Fagor Taldeko Newsletter-a sortu genuen, Taldeko Kooperatibetako bazkide guztiei Taldeari lotutako ekimenen berri zuzenean emateko. Hartzailerik kopuru osoa 5.000 pertsona ingurukoa da eta hilean behineko maiztasuna du. On line formatuan argitaratzen da eta emailaz zabaldu.</p> <p>Hizkuntzari dagokionez, Newsletter-a banatzeko irizpidea arestian aipatutakoa izan da: euskaraz dakiten pertsoneri euskaraz, eta gainontzekoei ele bietan. Horretarako, kooperatiba guztietako ezagutza mailak datu base bakarrean bateratu dira eta aurrerantzean erronka izango da kooperatiba bakoitzean izandako langileen mugimenduekin datu basea eguneratuta mantentzea.</p> <p>Newsletter-a bezala, bi kanalen bidea hedatzen jarraitzea da helburua eta ulermena bermatuta dagoenean euskara hutsezko kanala erabiltzea. Horretarako, bazkideen ezagutza mailak hobetuz eta horien erregistroak eguneratuta izanez.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

FAGOR S. COOP.-eko
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

2018ko urtarrilak 8



|
AURKIBIDEA

1. HELBURU NAGUSIA.....	3
2. POLITIKA ZEHATZAK.....	4
2.1 Zerbitzu hizkuntza.....	4
2.2 Lan hizkuntza.....	7
2.3 Promozioa eta kontratazioa.....	9
3. EUSKARAREN FORMAZIO POLITIKA.....	10
4. ONARPENA ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEEN ARDURADUNAREN IZENDAPENA.....	10
5. HIZKUNTZA IRIZPIDEEN BETETZE MAILARI JARRAIPENA.....	11
6. KANPO AUDITORIA.....	11

2.2. Lan hizkuntza

- **Komunikazio idatzia**

○ Agiri-guneak, intraneta, posta elektronikoz bidali beharreko jakinarazpenak... euskara hutsean eta, ulermen arazorik balego, euskara lehenetsita bidaliko dira.

○ Lan bileretako idatzizko deialdi, txosten, akta eta abarrak euskara hutsean eta, ulermen arazorik balego, euskara lehenetsita egingo dira. Euskaraz sortuko da eta, ulermen arazoren bat tarteko gaztelaniaz behar denean, gaztelaniara itzuliko da. Euskaraz sortzeko zailtasunak daudenean horretarako bitartekoak jarriko dira.

○ Erakundearen barne harremanetarako idatziak, hala nola, emailak, oharrak, jakinarazpenak, memoriak, txostenak... euskara hutsean eta, ulermen arazoak dituenari, euskara lehenetsita bidaliko dira, bi kanal sortuaz beharrak hala eskatuz gero. Lehentasunez euskaraz sortuko da. Euskaraz sortzea ezinezko denean, berriz, gaztelaniatik euskarara itzuliko da.

